

Gerra Zibilean Hernanin fusilatu zituzten 200 gorputzetatik 116 identifikatu dituzte eta 17 hernaniarrenak dira

■ Arantzadi Zientzia elkarte eta hainbat historialari ari dira azterketa egiten eta lehen emaitzak jakinarazi dituzte ■ Arantzadik ekainaren 5ean hitzaldia emango du orain arteko ikerketaren berri emateko.

ARANTZADI Zientzia elkarte eta hainbat historialari eta ikertzaile Gerra Zibilak Hernanin izandako eragina aztertzen ari dira, Udalak eskatuta. Lehen emaitzak kaleratu dituzte frankistek Hernanin fusilatu zituztenei buruz: Hernanin lurperatuta dauden 200 gorputz ingurutik 116 identifikatu dituzte eta hauetatik 17 hernaniarrak dira. Gorputzen identifikazio fisikoa nahiko zaila ari da izaten, fusilatuak lurperatuta dauden hilobiak aldaketa asko jasan baititu.

Identifikazio lanak Udal artxiboan jasota zeuden agiritatik abiatuta egin dituzte, hain zuzen ere 1958an Hernaniko Guardia Zibilaren postuan komandante akzidentala zenak egindako agiri batetatik abiatuta. Dokumentu horretan fusilatutako 10 lagunaren izenak ematen ditu (tartean Jose Aristimuño *Aitzol* eta Jose Adarraga Larburu daude) eta beste 190 fusilatu ere badaudela dio.



Goian fusilatuei monumentua eta behean 1977an egindako omenaldia, lurperatutako lekuan.

FUSILATUAK

HERNANI: 17	MUTRIKU: 2
ARRASATE: 9	ZARAUZ: 2
ARETXABAETA: 1	PASAIA: 6
ESKORIATZA: 4	ZUMARRAGA: 2
OÑATI: 5	LEKEITIO: 1
ERRETERIA: 4	OIARTZUN: 1
DONOSTIA: 42	ALTSASU: 1
URRETXU: 6	MARKINA: 1
GATZAGA: 7	LASARTE: 1
TOLOSA: 2	ALEMANIA: 2

Identifikatutako hernaniar batzuk dira: Jose Adarraga Larburu, Saturnino Garbizu Arbizu, Eduardo Ajarnate Enrique, Jose Amilibia Saldias, Karmen Aranburu Oairzabal, Angel Arbizu Lasa, Bernardo Arrieta Goiburu, Luis Arrigorriaga, Ezequiel Etxeberria Amuztegi, Silverio González Fernandez, Jose Ziriaco Gutierrez Fernandez, Angel Jimenez, Jose Manrique, Julian Perez Rodríguez, Angel Tormes Asin eta Pascual Zabala.

UDAL ETA FORU HAUTESKUDEAK

15.452 hernaniarrek izango dute gaur botoa emateko aukera

GAUR dira Udal eta Foru Hauteskundeak eta Hernaniko 15.452 lagunek izango dute botoa emateko aukera. Hautesontziak goizeko 09:00etan irekiko dituzte eta arratsaldeko 20:00ak arte egongo da botoa emateko aukera. □

ELUR TXORI

Leitzara ibilia

ELUR Txorik urtero antolatzen du Leitzara ibilia; aurtengoa datorren igandean izango da, ekainaren batean. Plana da goizeko 05:00etan Hernanitik atera eta 12:30ak alderako Leitzara iristea. Bidean gosaria eta hamaiketako egingo dituzte eta Leitzan dutxatu eta bazkaria Gorritin izango dute. bazkal ondoan toka txapelketa izango da eta omenaldia egingo zaie 12 eta 25 aldiz ibilia egin dutenei. Izen emateko Elur Txorin, osteguna baino lehen. □

PELOTA

Manzidor Martinez gaur paleta goman

HERNANIKO txapelketako partiduak jokatuko dira gaur kiroldegian, 11:00etan hasita. Lehen partiduak Etxegia-Mendizabal/Urki-zu-Ruizen kontra eta bigarrenean Goiatz Manzidor eta Amaia Martinez hernaniarrak Lasa-Arozenaren kontra neurtuko dira. □

URUMEA IKASTOLA

'Escolaren eragina familian' hitzaldia asteartean

URUMEAK hitzaldia antolatu du datorren asteartean, *Escolaren eragina familian*. Zer egin gaia-zen bueltan. Elkanoko ikastetxe-ko liburutegian, 19:00etan. □

Galarretan enpresa parkea jartzeko intentzio protokoloa onartu du Plenoak

■ Ikerkuntza eta teknologia izango lituzke ardatz parke enpresarial berriak.

LEGEINTZALDIKO azken plenoa egin zen lehengo ostiralean Udaletxean eta puntuetako bat Galarretan parke enpresariala jartzeko intentzio protokoloa onartzea izan zen. Udalak Sprilurren konpromisoa lortu du ikerkuntza eta teknologia ardatz dituen enpresa parkea Galarretan jartzeko eta lur jabeekin akordio batetara ere iritsi da Sprilur. Parke enpresariala Galarreta frontoiko parkinetik gorako lur zatian joango litzateke, Jauregitik Sorgintxulora dijonan biderainoko mendi pusketa horretan.

Martindegiko lurzattia

Plenoak onartutako beste puntuetako bat Martindegin, auzoan bertan dagoen lur sail bat udalaren esku gelditzeko hitzarmena da. Manuel Fraile hirigintza zinegotziaren hitzetan Martindegi auzoa ekipatzeko garrantzitsua da hitzarmen hau eta etorkizunean ikusiko da zein erabilera ematen zaion.

Honez gain, Villa Ave Maria parkeko basoa Udalaren esku gelditzeko hirigintza hitzarmena ere onartu zuen ostiraleko plenoak, besteak beste. □



Parke enpresariala lijoakeen terreno parte bat, Galarreta gainean.

XIX MUS TXAPELKETA
ARALAR TABERNA

Aste honetako partidak:

Maiatzak 26, Astelehena
Angel - Ekaitz / Joseba - Inaxio
Juan - Martin / Alber - Pedro
Montoya - Miguel / Miguel - Joseba
Teo - Manolo / Villar - Joxe

Maiatzak 27, Asteartea
Gainza - Perren / Feliciano - Martin
Kano - Aitor / Koldo - Txuria
Roberto - Iñaki / Patxi A - Patxi B
Ramon - Esteban / Julian - Iñaki

Maiatzak 28, Asteazkena
Txato - Tito / Iñaki - Loren
Pitxurra - Salba / Balantxa - Balantxa
Aitor - Alvaro / Koldo - Isi
Manu - Joxe Leon / Roberto - Joxe

Maiatzak 29, Osteguna
Aitor - Peli / Mikel - Pottune
Joxe - Gerardo / Idiakes - Apezetxea
Juan - Diez / Iñaki - Joxe Ramon
Felix - Jexux / Egaña - Txiribi

JOXERIA
EDARITEGIA

Kale Nagusia, 7
55 00 32
HERNANI

Eguzki perfumeria

Cure denden, behar dezuna daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- Illeapaindegia

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

■ FUTBOLA - GORENGOA

Ligako azken partidua irabazi ezin Hernanik

■ Trintxerperen kontra 3-2 galdu zuen atzo tentsioa falta izan zuen partidu batean.

HERNANIK ligako azken partidua jokatu zuen atzo eta irabazteko aukerak izan bazituen ere 3-2 galdu zuten Trintxerperen etxean. Hernaniarrak relajatu egin dira azken partiduetan eta Iñaki Eskisabel entrenatzaileak ere hori nabarmendu du "taldea asko relajatu da azken partiduetan eta tentsio falta hori nabaritu da". Hernaniarren golak bat Trintxerpeko jokalaririk batek bere atean eta bestea Blanchek. Hernani jaisteko postuetan egotetik ia sailkapen erdira igo da 10 partiduetan eta Eskisabelek balorazio ona egin du "10 partiduetan 5 irabazi ditugu, 4 galdu eta 1 berdindu eta joko maila ere ona izan da". □



Hernaniko jokalaria bidean, Zubipen.

EA-EAJk dio Zaharren Egoitzako zerbitzuaren kalitateak antolakuntza berriarekin behera egin duela

IMANOL Beroiz Ongintzako buruak ISO 9001 kalitate agiria azaltzeko egindako prentsaurrekoan esandakoari erantzunez, EA-EAJk esan du azken bi hilabetetan behera egin duela kalitateak Zaharren Egoitzan: "goizeko lehen ordutan egin beharreko lanak asko atzeratzen dira. Eta jakina, prozedura eta antolakuntza berri hauek ez ditu ISOk oraindik

neuritu". EA-EAJk Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa oharrean salatzen du Ongintzako jaun eta jabe egin dela Beroiz "araz ez badagokio ere". "berak hartzen ditu erabaki guztiak, sortzen ditu sesio guztiak, korapilatzen ditu arazo guztiak... horrek ekar liezazkiokeen erresponsabilitateak ez ditu, ordea, bereganatu nahi" dio EA-EAJk.

Antolakuntza berria
EA-EAJ alderdiak nabarmendu du martxoaren ezkerreko jarritako antolakuntza berriarekin "ISO agiria zakarrontzira bota duela" Ongintzako buruak eta gerentearen txostenak hori dioela. EA-EAJren hitzetan txostenak nabarmen jartzen du antolamendu berriak normalean ez duela kalitatea hobetuko, guztiz kontrakoa baizik. □

Alderdiek emakumea eta berdintasunaren inguruan dituzten egitasmoak azaldu zituzten

BERDINTASUN kontseiluak antolatuta, Hernaniko Bildu Hernani, EA-EAJ eta EB-IU alderdiek emakumea eta berdintasunaren inguruan duten ikuspuntua azaldu zuten. Alderdi guztiek bat egin zuten Berdintasunaren Kontseilua beharrezkoa zela esaterakoan, nahiz planteamenduan aldeak izan. Iñaki Arratibelek EA-EAJren izenean esan zuen gizarte zerbitzuetarako batzorde bat sortu behar dela berdintasunarena eta beste hainbat gai bilduko dituen: etorkinen gaia edo hirugarren mundua adibidez. Mertxe



Alderdietako ordezkariak eta moderatzailea, Biterin.

Etxeberrira Bildu Hernaniko zerrenda buruak esan zuen ez dela kasualitatea Berdintasun kontseiluaren inizatiba Ezker Abertzaleak hartu izana eta beren asmoa dela Berdintasun sailak Udaleko alor guztietan eragina

izatea. Txema Mercado EB-IUko zerrenda buruak esan zuen Berdintasun sailak autonomia behar duela eta beste sailetan sartzeko aukera izatea eta horretarako bitartekoak dutela garrantzia berezia. □

■ JASOTA BEZALA

AHOA BETE ETXEBIZITZA
Izugarritzako tripako mina ematen digu, orain hauteskunde garaia izaki, zenbait politikoa ahoa bete hitz polit ikusten ditugunean. Etxebizitzaren arazoa konpontzera doa zela promesak dihardute. Beteko ez dituzten promesak.

Jabetza pribatua bultzatzen da nagusiki, jakinik horrek espekulazioari joko ematen diola, berandu baino lehen merkatu librean eroriko baitira Babes Ofizialeko Etxeak ere. Bitartean, konstruktorei oso ondo doakie, imajina ezin daitezkeen azpijoko instituzionalen bitartez, eraiki eta etekinen %75

poltsikoratzen dutelarik.

Herrigintzan ari garenok, eta gure kasuan etxebizitza eskubidea bermatua izan dadin lanean jardunda, badakigu zer nolako zailtasunekin aurkitzen den Udala helburu horren bidean. Jaurlaritza eta Diputazioa dira etorkizunean eraikiko diren etxeen kokapen eta kopurua erabakitzen dutenak. Eta han PNV-EA tandemak kudeatuta, zenbaitzuen interesen arabera gestioa eramaten dute eta ez gehienon beharrei begira. Egoera ez litzake oraingoa izango, behar bezelako alokairuzko etxebizitza parke publikoa martxan egongo balitz. Eta

hori ez dute bultzatzen, eta ez dute bultzatuko, ez da beraien estila.

Honetaz gain, aipatu behar dugu azken urteetan Udalak izan duen jarrera irekia, gizarte mugimenduari ateak zabalduz. Etxebizitzaren kudeaketarako kontseilu bat sortzeko du, etxe hutsen azterketa bat egin da alokairura ateratzen daitezkeen ekimen bati begira e.a.

Hauteskunde garai honetan kontrakoa irudikatu nahi badute ere, PNV-EAk ez diete Hernaniarren eskubideei erantzungo.

Honela, gure aukera argi daukagu. Bildu Hernani!!

Kepa Pikabea (Ate Joka)



Gaizka Lekuona eta Naima Chgnouf Arizmendi jatetxean.

Arizmendi jatetxean menuak eta parrillako janak

ARIZMENDI jatetxea nagusi berriek irekiko dute bihar, Oria Mendin. Sukaldaria Gaizka Lekuona hernaniarra da Oiarzungo Kaxkaxurin, Estocolmon, Baqueiran eta besten hainbat tokitan ibilia eta kamareroa Naima Chgnouf Pariskoa. Asmoa da bazkal orduan

eguneko menuak ematekoa (aste egunetako eta larunbatetako) eta igandetan eta iluntzetan parrillako jana izango dute aukeran. Karta, berriz, ekaina erditik aurrera izango dute, martxa pixka bat hartzean. Eta gusto duenak sagardoa ere izango du kupeletik. □

■ HITZ BITAN

✓ TENIS TXAPELKETA

Gazteentzako tenis txapelketa. Kiroldegiak antolatuta 1989, 1990, 1991 eta 1992 urtean jaiotakoentzat tenis txapelketa egingo da kiroldegian. Izen ematea kiroldegian bertan egin behar da maiatzaren 31 baino lehen.

✓ ATLETISMOA

Maiatzean ondo atleta gazteak. Gipuzkoako txapelketako finalak jokatu dira maiatzean, herri desberdinetan. Hernaniarren paper ona egin dute eta hiru domina ere lortu dituzte: zilarra Laura Madinak 220 metroan eta Eider Aldabek 1000 metroan, eta brontzea Mikel Von Wichmannek 60 metro hesietan. Madina eta Aldabe atzo Euskadiko txapelketa jokatzeko aukeratu zituzten, baina emaitzak ez dakizkigu oraindik. □

50 URTE EZKONDUTA

PASKUAL UGARTEMENDIA - M^a JESUS URKIOLA

ZORIONAK osaba eta izaba

M IKEL - M^a KARMEN - MA EL - EKAITZ

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoak: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- ▶ Gauzez: Elizondo
Andoain. Zumea 30
☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu goizez telefono honetara: **943 55 67 06**

Bi bizikleta salgai. Umearentzat (5-8 urte) eta gaztearentzat (16 urte) aproposak. Interesatuak deitu telefono honetara: **629 44 37 58**

SAGARDOAREN SUSTAPEN SOZIOKULTURALERAKO SORTURIKO ENTITATE BERRI BATEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

- Prestakuntza akademiko egokia eta komunikazioarako, planifikazioarako eta ekimenerako gaitasuna duena.
- Zuzendaritza batzordearekin elkarlanean aritzeko.
- Entitatearen garapena sustatu eta helburuak lortzeko.
- Entitatea osatzen duten elkarte eta erakundeak motibatuzko Gure eskaintza: urte beteko lan-kontratua egun erdirako eta dedikazio handiagoko behin betiko kontratua egiteko aukera.

Curriculumak bidaltzeko epea: ekainaren 6a, 13:00ak baino lehen

Helbidea: Kale Nagusia 48, 20.115 Astigarraga edo
au.kultura@astigarraga.net Erreferentzia: SAG.KUD.